

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

69. zenbakia

95eko apirilak 28



Sanprointzioak Lazkaon

ATAUN San Martin **Etxebizitza hau merezi duzu**

Eraikitako 280 m² lau alturatan

Semisotoa: Garaje eta Txokoa

Beheko solairua: Egongela,

Sukaldea eta Komuna

Lehenengo solairua: 3 logela bikoitz

2 bainugela, 2 terraza

Teilatu azpia: 60 m²



Etxe adosatuak lorategi pribatuarekin


INGURUNE PAREGABEAN BEREHALA ESKURATZEKO AUKERAN

- Guztiz osaturiko sukaldea
- Gas berogailu indibiduala
- Antena parabolikoa
- Kalitaterik goreneko eraikuntza
- Ordainketa erreztasunak
- Prezio harrigarria

Zehaztu gurekin zita,
eta gustora erakutsiko
dizkizugu etxebizitzak.

Tel. 34.07.97 - 34.00.42

Festa onak pasa!



⇒ Pinturak

* Dekorazioa

* Industriala

⇒ Tresnak

⇒ Makinaria

Tfnoa. eta faxa: 88 65 63

Hiribarren, 24 LAZKAO



MAPFRE

ASEGURU TALDEA

☎ 16 13 61

Hirigoien, 18

Festa onak pasa!

Pello Barandiaran

LAZKAO

M. ARTOLA MODELOAK

Fundiziorako modelo eta plaken tailerra

Zubi-Erreka z/g

☎ 88 79 30

LAZKAO



**HORNITEGI
LANABES ETA
HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA**

Madalena, 2 - Tlf. 88 19 95 LAZKAO



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Tfnoa: 882442 - 888901 Faxa: 888901

Senpere Industrialdea - LAZKAO



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA

LAZKAOKO SAN PRUDENTZIO JAIK

Alkatearen Agurra

Lazkaotar, eta egun hauetan gure artean izango diren kanpotar guztioi agur bero bat. Gure herriko festa hauetan, eguneroko lan eta arazoak ahaztu, elkartasuna landu eta pozik igarotzen saia gaitzela.

Gure artean baditugu zenbait arazo eta ezadostasun, baita ere zenbait gertaera tamalgarri alde batean eta bestean. Guztiok saia gaitzela jarrera baikor eta konstruktibo baten bidez bakoitzak ahal duen neurrian, iritzi desberdinak errespetatu eta arazoei konponbidea bilatzen.

Nire esker ona programa hau aurrera eramaten, elkar lana eskaini duzuen guztioi, zuen laguntzak erretzen bait du ekimen hau.

Azkenik, legealdiaren bukaeran gaudenez, eskerrak udalean elkar lanean aritu diren zinegotzi guztiei, baita ere herritar guztiei, bere laguntzagatik. Modu berean barkatu egindako hutsegite guztiagatik.

Alkatea: Iñaki Estensoro



Lazkaoko

Udala



GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarrak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
 Jon Arano, Mikel Albisu.
Publizitatea:
 Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
 Ana Irastorza, Rufino Iraola,
 Jon Aizpurua, Gabino Murua,
 Josune Amundarain, Mari Joxe
 Madariaga, Josetxo Zufiaurre,
 Aloña Galarraga, Edurne Albizu
 eta Aitor Arza.

Azaleko argazkia: Dioni.

Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 4.700 ale. 4.500 harpi-
 dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkin-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



"4.23" laburmetraia errodatu da Ordizian

Urnietako "Sarobe" Arte
 Eszenikoen Eskolak zine-
 gela bat sortu du eta, ikastur-
 tean zehar, lehendabizikoz
 eman dute bertan ikastaro
 oso bat zinegile ospetsuk
 (Urkizu, Gaztambide...). Gi-
 doiak prestatu eta argazki,
 soinu eta gainerako sailetatik
 paseaz, 3 laburmetrai egitera
 jo dute horko ikasleek.

Taldeetan banatu eta
 (Udalak utzitako lokalean, 4
 egunetan) "4.23" "kortoa"
 errodatzea egokitu zaie Aste
 Santu aurretik Joxe Ramon
 Camacho (zuzendaria, Bea-
 saingoa), Amaia Iparragirre
 (zuzendari-asistentea, Idia-
 zabalgoa) eta Imanol Jua-
 nes-i (dekoratzailea, Ordi-
 zia)koa, besteak beste. Titu-
 lua iraupenak jarri dio obrari:
 4 minutu eta 23 segundu. Bi-
 kote baten istorioa da: muti-
 lak neskarekin sexu-harre-
 manak izan ditu, aurretik
 esan gabe HIESik zuenik.
 Dena diskoteka bateko ko-

munean gertatzen da. Be-
 raiaen arteko burruka, neskak
 aurre egiten dio mutilari,
 honen erruz kutsatu delako.
 "Sinbolo gisa odola, txistua
 eta pasioa nahastu ditugu.
 Burruka egin eta gero larru
 jotzen bukatzen dute. Pasioa
 edozeren gainetik geratzen
 da". Gordina eta gaurkota-
 sun osoko istorioa, beraz.

Protagonistak antzerki
 munduko aktore profesiona-
 lak izan dira, interpretazioa
 baitzen garrantzitsuenak. Eta
 airoso atera omen da ekipoa;
 zuzendaritza-lana, berriz,
 bikain. 35 mm.-etan (forma-
 to profesionalean) egin da
 filma, jaialdietara eramateko
 moduan. Gipuzkoako zine-
 ma aretoetan eta Tb-ren ba-
 tean ere proiektatuko den es-
 perantzak dituzte egileek.
 Goierritar zinezaleok beste
 zenbait pelikula egiteko as-
 moak ere badituzte, oso gus-
 toa geratu baitira.

Besteek esana

Zerain

"Biztanlegoari eustea du
 helburu Zerain proiektu-
 ak". (...) "Guretzat ekono-
 mia (lanpostuak, inber-
 tsioak...) kulturaren azpitik
 dago". (...) Ez dute, hala ere,
 jende gehiegi hurbilduko
 zaien beldurrik. "Guk kon-
 trola dezakegu turismoa,
 zenbat jende etorriko den eta
 zer jende mota nahi dugun
 etortzea. Merketina eta pu-
 blizitatea beti oso zuzen-
 duak egiten ditugu. Orain
 arte haurrak ekarri ditugu.
 Haur horiek asteburuetan
 beren familiak ekartzen hasi
 dira, baina oraingoz erraz
 kontrola daitekeen eskala
 da". Museoak zortzi mila
 bisitari izan zituen eta herri-
 ko produktuen dendan 500
 kilo indaba saldu ziren.

**Jakoba Errekondo, Ar-
 gian, 95-IV-9an.**

"Gaur egungo gizartean,
 lege zibila/lege morala ga-
 tazkaz gain, heriotzaren
 kultura eta eta bizitzaren
 kulturaren arteko borroka
 dramatiko dago". (...) "Fe-
 dea eta bere egia aurre egin
 aurretik, arazo moralei bu-
 ruz eztabaidatzea (abortoa,
 eutanasia, preserbagai-
 luak...) alferrik da, are
 gehiago, ez du zentzurik".

**Anjel Sukiak DV-n,
 95-IV-24n.**

*Eusko Jaurlaritza-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

.....

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ordizia Rugby artaldeari

Ezaguna da gizakiak animaliangandik bereizteko grina betidanik izan ohi duena. Areago, esan leike animaliangandik bereizteak damaiola gizatasuna, nahiz antza pittin baten sumoa ezin uxatu duen. Zenbaitek (hextxizero azkarrak noiznahi eta beti ugariak izaki) arima bat ere sumatu zion (gizakiari) eta, duintasuna aitzaki, baita Jainkoa/k ezarri ere, gizakitasuna odolki galestituz. Ahalegin horien ondoren nabarmen zegoen guk animaliekin zerikusirik ez genuena: batzutako bortizkeria? Bah..., Jainkoaren izena eman, eta kitto. Hura atsegina!

Ordea, Darwin jauna azaldu zitzaigun, halako batean, gure poza hankazgora jartzea: gu eta animalien artekoa ez zela ezkuta beharreko antzera mugatzen esanez eta frogatuz: alegia, geurekin generamala animalia, nork berea, jakina.

Hau mina gurea eta noraeza ordu-danikoa!

Harrez gero, gizakiaren ahaleginak bere barneko animalia uxatu ezin badu menderatuz baretzeari edo iraitzeari zuzendu dira. Batzuk zentzuna jarri zuten hortara, txukunki lortu ere askok gizatasuna. Besteek, barnekoaren bortitaz edo burukoaren

motelaz (ba da burua baloia jotzeko erabiltzen duenik ere), bere animalia-ri jaregitea erabaki zuten, ibiliaren ekinaz soseatuko zelakoan: horrela, galgoa zeramanak korrikari eman zion, kanguroa zeramanak saltoak egiteari, ahuntzarekikoak eskalatzeari, elefantea zeukanak harriak jasotzeari, e.a.

Ez zen, halere, nahikoa, ez. Horko etekinaz norbaitzu jabetu zirenetik, nonnahi zabaldu dituzte polizoote-giak, sublimazio orokorra lortzearen (omen): batzuk (soseazinenak) barnekoak askatuz, besteek txalotuz, eta soinean putrea daramatenak (hauek bai azkarrak) ederki aberastuz.

Zuek, Rugbykoak ere hortan saiatu zarete. Askotan ikusi zaituztet korrika bultzaka eta zilipurdika, barnekoaz erditu nahian bezala, izerdi eta lokatz. Hor konpon: norberak daki hobekien mamuak nola uxatu. Hiritik aparte ari zineten, herria kutsatzeko arriskurik gabe, alegia, eta gaitz erdi. Zuek horrela ikustean sentimendu nahasi bat sortzen zitzaidan: errukia alde batetik horren erditze latzagatik (jai eta egun animalia iraitzi ezinez, beti indarrean) eta itxaropena bestetik, horren iraitzeta gogorrean emaniko senperak gero gizakiagoak bihurtuko zintuztelakoan.

Baina bai zera!: lekutara joan da

nire itxaropena GOIERRITARRA-ren 68. alean zuen ametsaren berri jakin dudan orduko. Zuek ere zeuon animalia nahi diozuela jendeari erakutsi eta eskaparatea eskatzen?! Eta ez nolanahikoa, 100- 150 milioikoa, alajaina! Orain bai mamuak menderatu zaituztela: aldagelatan hain sarritan lagatzen duzuen zentzumena berriro janztea ahaztu egin al zaizue ala? Nondik datorkizue horrelako atrebentzia? Gizateria iraintzen ari zaretenok zeren truke eskatzen duzue jendeari hain bortizki xurgatu izerdiaren horrenbestekoa? Merkea da zuen haztarrikalekua!

Beha jaunok: gizartean tokirik nahi ba duzue, basurdearena egitera zoazte mendira, eta ez itzuli gizamenaz jantzi arte. Ez kezkatu mendikoez: zuek han ikusita behera jaisten badira guk ez dugu protestatuko, haiek (benetako basurdeek) sikera jaten emango ligukete eta izerdi-zergarik eskatu gabe ordainetan.

Agintariei berriz, Orwellen 'Rebelion en la granja' (euskeraz ere badagoela uste dut) irakurtzea gomen-datuko nieke (oraindaino egin ez badute), zuen ametsari amore ematearen basakerian erori aurretik.

Iñaki Garmendia (Zarautz)

ASEGURU / AGENTZIA

MUNDUATE

☎ 888620, Fax: 889118

Hirigoien, 12 LAZKAO

UNTXUNDEI
Garajea



OSINALDE
Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....	721614
Donostiako Erresidentzia:	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:	094
Errepideen egoera:	288888
Ertzaintza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:	458005
HIES-SIDARI buruzko Inf.:	282666
Alkoholiko Anonimoak:	276618
Goierrri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612

Errezeta



Miren Aranburuk emana
Manuel-enea taberna Lazkao

TIGREAK

Osagaiak: mejiloiak, tipula, piper gorriak, piper berdeak, bonito lata, bexamela eta jereza.

Tipula zartagian gorritzen jarri, piper berdea lehenag eta hauek egitean piper gorria gehitu. Dena egiten denean, bonitoa eta ondoren

jereza gaineratu. Azkenik mejiloiak gehitzen zaizkio. Ondoren gaztu. Gehigarri guztiak ere txiki-txiki egin-behar dira.

Mejiloi maskorrak "farsa" horrekin betetzen dira eta bexamel geruza mehe batekin estaltzen dira. Ogi birrindu eta arrautzetan pasa ondoren frijitu eta jateko

Bota bertsoa



Joxepa Madariaga Gaia: Garraioa Doinua: "Zaldi zuria-renak"

Abiadura handiko kotxe eta trenak aurretik eramanez pareko denak... argi hori-horiak, luzeak antenak, "kuentakilometrosak" berrehundik irtenak; abiadura demak dakartza problemak, neke eta penak askontzat direnak; asko dira bizitza galtzen dutenak. (berriz)

Garraio publikoa ez da berriketa jarri behar diogu beraz arreta: bidaiatzeko hartu behar dugu beta, gehiago erabili denok bizikleta, autobusa eta trenean tarteka, harturik maleta gainezka beteta... ezagutu liteke ondo planeta. (berriz)

LEKIM HARROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK

Ibabe industrialdea, 11

☎ 16 12 83

LAZKAO



Etxe - Zuri
Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria
Tel. 88 20 49

OLABERRIA

Sagardoa txotxetik urte guztian
Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.

LAZKAO TABERNA

Zorionak herritarrei!

Gurutze, 6
LAZKAO

☎ 884822



GAUR

KARROZATEGIA

Auto konponketa - margoketa

Mendizalbal baserria

☎ 88 86 09

LAZKAO

albisu
KRISTALDEGIA

Ordiziako Industrialdea - Pabellón. 40
Tel. y Fax: 88 71 58
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Debaldeko iragarkiak

Salerosketak

□Goi-mendiko zakua salgai, lumaduna, berri-berria, salneurria tratuan, hitzegiteko. Dei 889612ra, Mikel.

□ "Temas clave de Salvat" delako bilduma osatu nahi nuke. Zenbait ale erosiko nituzke edo beste zerbaitei trukean hartuko. Vega, Ordizia, 887188.

□Renault 6 (8310-M matrikuladuna) salgai. 884639 tfnoa.

Lana

□Neska gazte batek ostalaritzako edozein lan egingo luke, esperientziaduna. Dei 882033 telefonora, (goizeko 10etatik 12etara) Mari Jose.

□Etxekoandre beasaindarrak prest, etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko, bulegoak garbitzeko edo jate-txean lan egiteko. M^a Jesus, 887097.

□Historialari bat eskaintzen da genealogia egiteko. 883072 (Arkaitz, iluntzeko 8etatik aurrera).

□Administrari euskaldun bat edozein lanetarako prest. 801896.

Etxebizitzak

□Donostiako Grosen lagun bata behar da pisua osatzeko. Gaez deitu 291110 tfnora (Jontxu).

Egutegiak

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Maiatzak 5, Udal Antzerki Tailerraren Valle In-
clanen 'La cabeza del dra-
gon' obra, Usurbe Antzo-
kian, 15etan, ikastetxeen-
tzako egingo den emanldi
berezian.

Maiatzak 6, Donostia
anaiak pailazoak Ezkierdi
Pilotalekuan, 17.30etan.

✓ Gabiria:

Apirilak 29, Takolo, Pi-
rritx eta Porrotx pailazoak
Herriko Plazan, 17.00etan.

Apirilak 30, Goaz an-
tzerki taldearen 'Eun dukat'
antzezlan, Parrokiako
Antzokian, 17.00etan.

✓ Idiazabal:

Maiatzak 5, Bederen 1
taldearen 'Errenta' antze-
zlana Igarondo Pilotale-
kuan 22.30etan.

✓ Ordizia:

Maiatzak 5, Trapu
Zaharra taldearen 'Tarde de
Sabado' lana, Herri Antzo-
kian, 22.15etan.

BERTSOAK

✓ Gabiria:

Apirilak 29, XIV. Ber-
tsolari gazteten txapelketa
Osinalde Elkartearen,
21.00etan.

MUSIKA

✓ Beasain:

Apirilak 29, Slauko bos-
niarraren kontzertua Aterpe
Tabernan, 23.00etan.

✓ Ordizia:

Apirilak 29, Oroith
Abesbatzaren kontzertua
Eliza Nagusian, 20.00etan.

DANTZAK

✓ Beasain

Maiatzak 6, Maiatza
Dantzan kanpainaren ba-
rruan, Iliacan taldeak 'Ya
no sabria tornar' dantza
ikuskizuna eskainiko du
Usurbe Antzokian,
22.30etan. Sarrera 800 pe-
zeta.

ZINEA

✓ Beasain:

Igandea 30, "Nell",
7,30-10,15.

Astelehena 1, "Nell",
7,30-10,15.

Asteartea 2, "Nell",
7,30-10,15.

Maiatzak 2, 'Ipar hai-
zearen itzulera' euskarazko
filmea haurrentzat.

Zine Kluba:

Maiatzak 4, 'La casa
encantada' eta 'Un espiritu

'Un espiritu burlon'

David Lean (Bretainia
Haundia, 1945)

David Leanek zinemara
eraman zuen Cowarden an-
tzezlan arrakastatsu hau, iro-
niaz beteriko mamu eta espiri-
tuen giroan kokatzen du. Hiru
izakien arteko maitasun ingu-
rune bitxi batean barnean, es-
piritismo saio batean gertaturi-
koa dugu ikusgai (goraipatze-
koa da, Margaret Rutherfordek
medium bezala egiten duen
lana). Espiritismo saio hone-
tan, espiritismoari buruz iker-
tzen ari den idazle baten emaz-
tea zenaren agerpenak, ida-
zlearen eta bere emazte berria-
ren artean hainbat arazo sor-
tarazi nahiko ditu.

Pelikula honetan bestalde,
zuzendari britainiarrak bere
maisutasuna eta trebezia era-
kusten digu, istorio dibertiga-
rri hau, malizia izkutu batez
hornitzaerakoan, haseratik eta
ezusteko bukaerarte.

burlon' filmeak, Usurbe
Antzokian, 20.50etan.

✓ Ordizia:

Ostirala 28, "Pulp fic-
tion", 10,15.

Larunbata 29, "Pulp
fiction", 7,30-10,15.

Igandea 30, "En la No-
che Buena se armó el Be-
lén", 4,45; "Pulp fiction",
7,30-10,15.

Astelehena 1, "Juego
mortal", 7,30-10,15.

Maiatzak 6, Beldurrezko
eta fantasiarazko zine mara-
toia Herri Antzokian, arra-
tsaldeko 7etatik goizaldeko
2ak bitartean.



Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

Diseinu Grafikoa

Logotipoak, Katalogoak,
Liburuskak, Packaging,
Buzoiaketak, Txartelak, ...e.a.

Serigrafia

Poloak, Kamisetak, Txanoak,
Jaietako Zapiak, Boligrafoak,
Pins, Piskailuak, ...e.a.

Errotulazioak

Ibilgailuak, Denda eta
Enpresak, Seinaleztapena,
Argizkoak eta Neonezkoak.

ORDIZIA ☎ 16 12 87 - PRUEBAS EN 24 HORAS - LEGAZPI ☎ 73 43 61

BESTELAKOAK

✓ Idiazabal:

Maiatzak 2, Bernardo Atxagaren irakurketa saioa, Kultur Etxean, 20.00etan.

✓ Ordizia:

Maiatzak 6, aintzinaki eta bildumagaien hileroko azoka Beti Alai pilotalekuan, goizeko 10etatik arratsaldeko 8ak arte.

HITZALDIAK

✓ Gabiria:

Apirilak 28, 'Eguraldia atzo eta gaur' gaia aztertuko dute Andoni Aizpuru eta Pello Zabalak, Udal Liburutegian, 20.30etan.

✓ Idiazabal:

Maiatzak 3, AHTren aurkako asanbladaren bideo emanaldi eta hitzaldia: 'Abiadura haundiko tren Euskal Herrian', Kultur Etxean 20.00etan.

Maiatzak 4, sexualitateari buruzko hitzaldia Kultur Etxean 20.00etan.

✓ Lazkao:

Maiatzak 3, Gotzon Bujandaren HIESari buruzko hitzaldia, Maizpiden 21etan.

✓ Ordizia:

Apirilak 28, Juanjo San Sebastianek mendiari buruzko hitzaldia eskainiko du Barrenan, 20.00etan.

Maiatzak 2, 3, 4, eta 5ean, Aula 3-aren barruan, 'Bizitzari osasuna gehitu' hitzaldiak, arratsaldeko 5etatik 6.30etara.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

✓ Idiazabal:

Apirilak 28, Josu Eizagirek 'Irati izanaren mugari' audiobisuala eskainiko du Kultur Etxean, 20.00etan.

Maiatzak 8, Alberto eta Felix Inurrategik 'K2 94' ibilaldiko audiobisuala eskainiko dute Kultur Etxean 20.00etan.

✓ Lazkao:

Maiatzak 9, 'Urtaroak mendian' diapositiba emanaldia, Imanol Lasaren eskutik, Maizpiden 21etan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Apirilaren 28ra bitartean, Lola Ibarrondoren erakusketa Aterpe Tabernan.

Apirilaren 30era bitartean, Joseba Alonso eta Mari Sol Legorbururen erakusketa Usurbe Antzokiko Erakusketa- Aretoan.

Apirilaren 29tik maiatzaren 19 arte, Juan Narbarteren erakusketa Aterpe Tabernan.

Maiatzaren 4tik 14ra, Luis Cisnerosen erakusketa Usurbe Antzokian.

✓ Ordizia:

Maiatzaren 5a bitartean, Charo Berraren pintura erakusketa Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Apirilak 30, Uzkoiti-Aralarrera (1.343 m.) irteera.

Maiatzak 7, Tutturere-Baraibar (1.282 m.)

Ordiziako mendizaleak:

Apirilak 30, Txindokira (Elkartaren 50. urteurrena).

Maiatzak 7, Lizarrusti-Igaratza-Amezketara.

Pausogaizto Goierriko mendizaleak:

Apirilaren 29tik maiatzaren 1era, Mountain-bike bardeetan, Kariñenarrekin.

Idiazabalgo mendizaleak:

Apirilaren 29tik maiatzaren 1era, Zuriza-Hiru Erregeen Mahaia/ Peñaforca

GOARDIAKO BOTIKAK

Apirilak 27: Atorrasagasti; *28*: Azpilikueta; *29-30*: Urbizu; *maiatzak 1*: Jauregi; *2*: Larnaga; *3*: Cuesta; *4*: Arriola; *5*: Urbizu; *6-7*: Jauregi; *8*: Atorrasagasti; *9*: Azpilikueta; *10*: Jauregi; *11*: Larnaga.



Albarikokeak nobedade

Aurtengoz behintzat, bukatu da arkume denboraldia, maiatzaren lehen larre aldia hasiko baita abenduaren 31 bitartean. Dena den, asteazkenean 153 buru saldu ziren, 500 pezeta kiloan.

Zizak berriz, ugaritzen eta aldi berean merketzen ari dira piskanaka. 15 kilo azaldu ziren guztira, eta kiloan, 13-14.000 pzta. ordaindu zen.

Kanpoko produktuei dagokienean, albarikokeak izan ziren nobedade (395). 'Gerezi haundia' ere azaldu zen lehenengoz, eta 1.700ean saldu ziren. Gerezi arrunta berriz, zertxobait jaitsi egin zen (600). Patatak (125), piper berdeak (250), platanak (200-250) eta tomateak (200-300) behera egin zuten. Ilarrak (375) eta laranjak (150-250), gora.

Arrainetan, oraindik ere ez zen bertako antxoarik azaldu (920). Gainontzean, legatza 1.780ean zegoen; txitxarroa 790ean; mihiarraina 1.580an; sardinak 520an; itsasoilarra 1.050an.

Ana Irastorza

IKASTEK
AKADEMIA

Maila eta arlo guztiak

☎ 16 01 20

Joan de Iturralde, 5

BEASAIN

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL


AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfona eta Faxe: 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK

"EZ DUZU EZER HOBETO IKUSIKO"



VARILUX LENTE PROGRESIBOAK

HURBILEKO NAHIZ URRUNEKO, IKUSMEN EZINOBEA

Lente progresiboetako teknologia aitzindaria espezialista onenek zeuri egokitua.
Zure ikusmena edozein distantziara ezinobea izateko.
Berme onenarekin. Aitzindariarenarekin.
Varilux. Ez duzu ezer hobeto ikusiko.



90 egunetarako geroratutako ordainketa-sistema, errekariguri gabea, gure kreditu-Txartel bereziarekin.



BERMEAREKIN:

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE
Ibargaray, 16 • BERGARA
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

Txandaka

Aste Santua

Astero Aste Santua balitz nahian nago, horrek laguntzen baitit egunerokotasun okigarriaren gainetik ibiltzen. Ez dago itsas ertzean olatuen musika entzun eta liburu berri baten orrialdeetan barrena murgiltzea bezalakorik mundua hobeto konprenitzeko. Hondartzan eta txikiteoan, euskaldunak baizik ikusten ez zen parajeen ibili naiz Aste Santuan. Eta benetako E.H. bakarria hantxe bakarrik zegoela iruditzen zitzaidan. Itzuli orduko E.H. askorekin egin dut topo. Eta E.H. guzti horien ordezkartza, eksklusiban, beren esku hartu nahi dutenekin ere bai. Astero Aste Santua balitz nahian nago, zeren ez nuen ikusi batere gustatzen ez zaidan Aznarren aurpegia, eta ez nituen ikusi are gutxiago gustatzen zaizkidan bonba-kotxeak egindako txikizioak. Astero Aste Santua balitz nahian nago, zeren horrela ez nuke ikusiko "Trajea noiz jantziko zenuke?" inor inori galdezka, Seguran bertsolari hari bezala, eta bertsolariak eman zuen erantzun nigargarria ez nuke entzun beharko. Nik neronek ez nuke trajerik jantzi nahi ez Aznarren hiletara joateko eta ez haren garaipena ospatzeko. Baina seguru nago bata lortu ez dutenek beste eskuratzen apur bat bederen lagunduko diotela. Astero Aste Santua balitz nahian nago, nahiz eta Majori baserria gehiago ez dudan ikusiko.

Rufino Iraola Garmendia

Inkesta

Zer diozu Iriartek Erreala entrenatzen jarraitzeaz?



Joseba Etxeberria
18 urte, ikaslea
segurarra

Ondo, gutxienez euskalduna da. Kanpotik ez dago inor ekarri beharrik. Orain artean partidua gutxi galdu dituzte eta gehiagora joango dira esperientzia hartzen duen neurrian.



Gorka Izagirre
25 urte, sukaldaria
segurarra

Futbola ez zait batere interesatzen, ez eta beste kirolik ere. Ez dut inor txo ere ezagutzen. Beraz, berdin zait Errealaren entrenatzailea hemengoa edo kanpokoia izatea.



M. Karmen Lardizabal
41 urte, tabernaria
segurarra

Ondo iruditzen zait, kanpokoia ez den bitartean. Askoz ere hobeto doa Erreala Iriartek entrenatzen duenetik eta meioratzen joango da gainera.

Bitxikeriak

Zumalakarregiren kapitain eskoziarra

1815ean jaiotako Carl Ferdinand Henningsen eskoziarra I gerra karlistaren garaian etorri zen E.H.-ra. Kapitana izatera iritsi zen, baita Zumalakarregi buruzagiaren Estatu Nagusiko partaidea ere. Aleman jatorriko eskoziar honek zenbait hizkuntza zekitzan eta karlistei balio handikoa izan zitzaizen kanpo-harremantarako. Ormaiztegiarra hildakoan (1835-VI-24), jaioterrira itzuli zen eskoziarra, "ez gerra bukatutzat jotzen nuelako, baizik eta nere atxekimendu osoa buruzagi harekikoa zelako. Nere soldadu maitasun haren jatorria desagertu zen, eta hutsune hori ez da berriro inoiz betetzen". Ondoren Kaukasora jo zuen, Errusiaren kontra tribu guztiak bilduz profeta baten alde jotzera. Gero Hungariako gobernuaren aurka aritu zen; segidan EEBBetara, Walker pirataren ondoan jeneral moduan gerra egitera. Azkenik, Sezesioko gerra amerikarrean, konfederatuekin batera borrokatu zen.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



**GOKINDEGA
GARMENDIA**

Laister irekiko dugu Lazkaon
Elosegi kaleko 14an.

Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 16 00 44
BEASAIN ORDIZIA

**Linterneritza
Gasa
Berogailuak**

BAKARRIK

☎ 88 07 65
908 671542

Igartza Oleta 10
BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariartz, 4
Tfinoa: 88 86 84

BEASAIN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

**Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak**

**Euskalerrria Kalea
Industrialdea**

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

Beasaingo kanpai hotsaren albisteak

Gauregun, abiada handian dihoan motorren bat edo oso baju dabilen hegazkina ez bada, gure inguruan isildu gabe dabilzan hotsetan ez dugu erreparatzen ere. Lan-tegi, trenak, autoak eta beste tresna askok ateratzen dituztenekin ohitu egin gara. Horregatik, mendian txorien kankak entzutean harrigarriak iruditzen zaizkigu. Hau dela eta, kale-zuloan gaudenean ez gara kanpai hotsarekin ohartzen. Eta etxean bagara berri, irratia edo telebistarekin ere ez. Baina gure gaztarorarte zerikusi handia izan zuen kanpai hotsak.

Beasaingo kanpandorrea laukia da, eta alde bakoitzean duen leiho irekian kanpaia du. Ifarralde edo atzekoan tinko dagoen kanpaia handia; Hegoalde edo aurrekoan bueltako handia; Ekialde edo eskubian bueltako txiki 1; eta Mendebalde edo ezkerrean beste bueltako txikia. Hauetaz gainera, kanpantorre gainean beste 2 daude, ordulariaren kanpai tinko txikia eta txintxine deitzen diogun bueltako kanpaitxo.

Gaur, sakristian dauden botoi batzuk sakatuz, argindarrarekin erabiltzen dira, baina oraindik urte gutxi direla denak eskuz erabili behar izaten ziren. Horretarako kanpai bakoitzak kanpantorrearen haserako beheko harmailetaraino iristen zen soka lodi eta luze

bana zeukan zintzilik, eta bueltako handia edo *errepiketa* jotzeko ez bazan, ez zegoen goraino igo beharrik.

Urte guzian, egunero, orazioko kanpaiak jotzen ziren. Goizeko 6/6.30etan *Matutia* izeneko joaldia; kanpai handian, astiro-astiro, batetik bestera gaurko neurritan segundu t'erdia-edo utziaz, 30 danda jo ondoren beste 3 geldiago joaz bukatzen zen. Eguerdian *Angelus* izenekoak, goizean bezala, baina 20 danda. Hau entzutean etxe gehienetan Angelusa errezatzen zen, eta soroan zebiltzatenak txapela kendu, elizaldera begira jarri eta erre-zoren bat ere bai. Gero lana utzi eta etxera bidean jarriko ziren bazkari bila. Ilunabarrean, berri, *Abemaritakoa*, beste 20 dandaz jotzen zen eta ondoren egun guztian irikita egondako elizako atea ixten zen. Iluntzeko joaldi honek mugatzen zuen gazteak etxeratzeko garaia. Ordurako sukaldean azaltzen ez zenak, etxe askotan izango zuen *afari motza eta errosario luzea*. 3 joaldi hauetaz gain, egunero elizan emango ziren meza bakoitzaren deiak ere jotzen ziren; orduerdia eta 5 minutu aurretik *txintxine* erabiliz.

Larunbat edo jai bezperetan, 14.00etan bueltako 2 txikiak 5 bat minututan jotzen ziren. Eta igande edo jai handitakoak baldin baziren, bueltako

kanpai handia ere bai; eta hontarako lagun pare kanpantorrera igo behar ziren eta, beste biak jotzen ari zirenekin, 4 pertsona saiatu behar ziren batera. Jaiardi egunen bezperetan, 14.00etan *errepiketa* jotzen zen. Hontarako kanpantorrera igo, 2 kanpai handien mingainak soka lodi batekin elkarrengana eta kanpaien barrungo ertza ikutuaz ondo lotu, eta sokari zeharkako astinduak bizi-bizi emanaz aritu behar zen.

Igande eta jai egunetan, goizeko mezen eta arratsaldeko bezperetako kanpai deiak honela ziren: apaiz bakarreko meza txikien aurretik, orduerdia eta 5 minutu lehenago bueltako txintxine. 3 apaizeko meza nagusirako, orduerdi bat lehenago bueltako 2 kanpai txikiak jotzen ziren; eta jai handikoa baldin bazen bueltako handia ere bai. 3 apaizeko meza guztian, hiletakoak baldin baziran ere, mezaerdikoan kanpai handiaren 3 danda jotzen ziren. Igande edo jai egunetako arratsaldeko bezperetarako deia, berri, normalean orduerdi bat lehenago *errepiketa* izaten zen, eta jai handietan meza nagusirako bezala, bueltako 3 kanpaiekin.

Aste Santuak bazituen joaldi bereziak. Ostegun Santuko arratsaldeko mezetan, Gloria abesten ari ziren bi-tarte osoan bueltako 2 kanpai txikiak

ETXEBIZITZA ETA LUR-SAILAK SALGAI IDIAZABALEN

1.- 650 m²ko **partzela**, etxebizitza bat edo bi eraikitzeko aukerarekin, Goatse inguruan.

2.- **Txalet** bifamiliarrak, guztira 250 m²ko partzelarekin. 180 m² 3 solairuetan eraikiak.

3.- **Apartamentuak**, 55 eta 60 m²koak, Zelaako auzoan.

Guardi Poligonoan **partzela industrialak** salgai: 18.000 pzta. m²ko.

Ezolatza Poligonoan, N-1 aren ondoan, **partzela industrialak** salgai: 22.000 pzta. m²ko.

Informazioa Idiazabalgo Udaletxean. Tfnoa.: 18 71 00



Karmelo Olano eta bere ama Maria Luisa Segurola kanpaijoleak dira honetan jakitunak.

joz egon eta ondoren mututzen ziren, Larunbat Santu arratsaldeko mezetan berriz ere Gloria abesten hasi arte, hau bukatu arte isildu gabe ari zirelarik. Bien bitartean, Ostiral Santuko egunean arratsaldeko ofizioak besterik ez ziren izaten, eta bertako deia sakristauak edo bere etxekoren batek karraka handia joaz, bazkalondoan kalerik kale egiten zuen. Pazkoa eguneko 06.00etan bueltako 3 kanpaiak jotzen ziren, eta berdin meza nagusiaren orduerdi aurretik.

Urtean zehar egiten ziren bedertziurreetan eta Azentzio asteko erro-gatibetan, bezperatik errepiketa jotzen

zen. Beste 2 joaldi bereziak hauek dira: bat, festetako astelehen goizean Loizoko San Martin Basilikara egiten den prozesio garaian, joatekoan elizatik irten, kalera jeitsi eta Urbi baserri parean gora izkutatu bitartean bueltako 3 kanpaiak isildu gabe arituko ziren, eta itzuleran, berriz, Urbi aldean azaldu eta elizara iristen zen bitartean ere bai.

Eta bukatzeko, heriotzaren inguruko kanpai joaldiak. Herritarren bati hil zoria iritsi zitzaioa jakiten zuenean, sakristaua kanpai handiarekin astiro-astiro danda luzeak jotzen hasten zen, eta denbora luzean jarraitzen zuen. Agoni kanpaiak deitzen zitzairen eta

herritar guztiak, kanpantorre aldera begira jarriaz, zori hura ahal zen azkarrena pasatu zedin zerbait errezatuko zuten. Hildakoaren albistea herritarrei emateko, berriz, komunioa egin gabeko haurra edo egindakoa zen nabaritu behar zen aurrena. Lehenbizikoei *Aingeruak* deitzen zitzairen eta beren hil-kanpaia kanpai txiki batekin errepiketa jotzea zen. Komunioa egindakotan berriz, ez zen nabaritzen gaztea edo zaharra zen, baina bai emakumezkoa edo gizonezkoa zen. Aurrena, poliki-poliki handia eta txikia txandatzuz, danda lasaieko saio luzea egingo zuen, eta ondoren bizkorxeago, gizonezkoa bazen 3 handi eta 2 txiki; eta emakumezkoa bazen 2 handi eta 3 txiki. Saio osoa bi aldiz jotzen zen. Hil-kanpaiak hildako eguneko ilunabarrean Abemaritakoak jo ondoren jotzen ziren, eta hurrengo egunean goizeko meza ondorenean, apaiza gorputzaren bila elizatik irtetzerakoan, hilotza elizara iristen zenean eta handik kanposantu aldeara irtetzen zenean.

Santu Guzien eguneko ilunabarrean, Difuntuen Egunaren bezpera zenez, hil-kanpaiak ordubete luzez jotzen ziren, saio bakoitzaren azkenean 3 handi eta 3 txiki joaz. Eta azkenik, herriko etxeren batek sua hartu zuela eta biztanlegoari laguntza eskatzeko, kanpai handiaren dandak sarri-sarri eta tarte luzean jotzen ziren.

 Josetxo Zufiaurre Goya



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



OLANGUREN INSTITUTUA

"Ikastetxe euskaldun integratzaile eta publikoa"
IKASKETA ERTAINETAN ESPEZIALISTA
Erabat euskaldun eta dohainekoa

Izen emateko epea irailaren 7tik 12ra
Kurtso hasiera: irailaren 30ean
☎ 88 08 62 - 66
ORDIZIA

Ba al dakizu...?

UDAL HAUTESKUNDEAK ATARIAN ditugu. Piskana-piskanaka ari dira herri eta alderdi bakoitzaren alkategaiak aurkezten. Guztienak ez ditugu, baina hona hemen jakin ahal izan ditugunak. (Hurrengo alean emango dugu xehetasun gehiago).

● Ataun: HBtik Karmele Aierbe; EAtik Jone Erauskin; eta Herrigintzatik (EAJ-EUE) Aitor Auzmendi.

● Beasain: EAJtik Jon Jauregi; HBtik Txemi Arteaga; PSE-EEtik Jose Luis Elorza; EAtik Idoia Arratibel; IUtik Eduardo Fernandez; eta PPtik Herre-

ros.

● Idizabal: EAJtik Josune Azurmendi; HBtik Martin Lizarazu; EAtik Antton Irizar.

● Lazkao: EAJtik Inazio Estensoro; HBtik Eukeni Lasa; EAtik Kepa Zubiarain; PSE-EEtik Jose Antonio Dopazo; IUtik Saldaña.

● Ordizia: EAJtik Juan Vicente Erauskin; HBtik Mirenbe Korta; EAtik Jose Arizmendi; PSE-EEtik Jose Manuel Ros; IUtik Pedro Lozano.

● Zaldibia: Zaldi-Ibia Udal Taldetik (ZUT) Migel Mari Irastorza; HBtik Iñaki Elizegi.




ADEI BARANDIARANI ONGI ETORRIA egin zioten Lazkaon apirilaren 11n, Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta hainbat lagunek. 1993ko abuztua ezkerotik kartzelan egon da, eta aurreko egunean atera zen Valladolideko espetxetik, 500.000 pezetako fidantza ordaindu ondoren. Egun berean beste lazkaotar bat, Ramon Begiristain, ere kaleratu zen Martutenetik miloi bat pezeta ordainduta. Azken honi berriz ez zitzaion ongi etorririk egin, "euskal preso politikoen

kolektibotik kanpo zegoelako", Amnistiaren Aldeko Batzordeek argitu dutenez.

JOSE JABIER MATA BEASAINDARRA hil egin da, apirilaren 1ean Murtziako katedraleko 60 kiloko harri bat gainera erori eta 8 egunez oso egoera larrian egon ondoren. J.J. Mata txirula jo eta dirua eskatzen ari zen bere neskalgunarekin batera, ezbeharra gertatu zen unean.

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN



ANZIZAR, S. A.

Volkswagen
taldea

Autoelektrizitatea
eta mekanika


Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6
☎ 16 17 44

ORDIZIA



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:

AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO

CAF-EN EUSKARA

IKASTEN. Euskararen erabilpena areagotzeko asmotan, 1990ean harremanak hasi zituzten CAF eta HPI-Nek (Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia). Euskara ikasteko plana borondatezkoa da, lanorduetatik kanpo ikasten dute eta orduko ordaintzen zaie. 1.500 langile batera euskalduntzea ia ezinezkoa denez, IV. Dibisioko Akabera eta Elektrikoen sekzioa aukeratu zuten plana aurrera eramateko. Sekzio honetan 291 langile ari dira; 248k baietz esan zioten planari (136 euskaldunak dira eta 112 erdaldunak). Planaren helburua lan harremanetan, bai ahoz, bai idatziz, euskara gero eta gehiago erabiltzea da. Guzti honetan, HABE eta Elhuyarrek ari dira elkarlanean.

JOANITO DORRONSO-RO ATAUNDARRAK "Bertso doinutegia" liburua argitaratu berri du. 2.196 doinu bildu ditu guztira 4 liburukitan eta horietako 300 behin

ere argitara gabeak dira. Dorronso-roren esanetan, "argi dago saio batzuk pobre geratzen direla doinuak gutxi aldatzen direlako".

ARANTXA ARZA ITSASONDOARRA dugu ETBk estreinatu berri duen 'Bertsoz bertso' saioaren aurkezle berria. Arantxa Arza Euskadi Irratiko langilea da eta gure aldizkariko kolaboratzailea. Aurretik Maizpide euskaltegian ari zen euskara irakasten.

GOIERRIKO BEDERTZI BERTSOLARI Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan aurkeztuko zirela aurreratu genizuen aurreko alean. San Prudentzio egunez hasiko da txapelketa Urretxun eta hona hemen partaide bakoitzaren xehetasunak: **Juan Ramon Gerriko:** idiazabaldarra, 26 urte eta kanderagintzako langilea. **Axier Oiarbide:** idiazabaldarra, 23 urte eta Goi Ingenieritzako 6. mailako ikasketak burutzen ari da.

Aitor Aldasoro: beasaindarra, 27 urte eta irratikari teknika. **Aitor Sarriegi:** beasaindarra, 18 urte, ingenieritza informatikako ikasketak burutzen ari da. **Mikel Aranburu:** Beasaingoa, 22 urte eta elektrizista. **Igor Eguren:** Beasaingoa, maiatzean 20 urte beteko ditu eta kazetaritza ikasketak burutzen ari da. **Jon Aiestaran:** ordiziarra, 18 urte eta Lanbide Heziketako ikaslea. **Xabier Narbarte:** ataundarra jaiotzez eta Lazkaon bizi da, 26 urte eta langabezian dago. **Jexux Mari Jauregi 'Altzo-Txiki':** Zaldibikoa, 34 urte eta iturgina. Zorte on guztioi!

SALVA IRIARTEK ERREALA ENTRENATZEN jarraituko du datorren denboraldia bukatu artean. Bizi guztirako kontratua sinatu du beasaindarrek Errealarekin, eta beste urtebetez lehenengo entrenatzaile egon ondoren, izango du Errealean beste lanik Iriartek.



MAIZPIDE
euskaltegia

☎ 88 92 31 / 32

LAZKAO

XXI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

- Uztaileko ikastaroa: 3-21
- Abuztuko ikastaroa: 1-25
- Iraileko ikastaroa: 4-29

Matrikula: maiatzaren 9tik aurrera
HABE-ren dirulaguntzaz

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRAIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83

BUBO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.
Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.
On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

JOXE BIKUÑA ATAUNDARRA, ELKARRIKO TAILER NAZIONALEKOA:

“Alderdi guztietatik behar da borondatea”

Elkarri 1992ko abenduan, “Euskal Herriko gatazkari beste irtenbide bat, beste alternatiba bat eman nahian sortu zen”, Joxe Bikuñaren esanetan. Ordutik euri asko egin du, eta Elkarriren nondik norakoen berri jakin nahian, ataundarrarekin izan gara berriketan.

G.- Zein helbururekin sortu zen Elkarri?

E.- Hemengo gatazkari beste irtenbide bat emateko, ikusita joandako urteotan daramagun bide horretatik irtenbiderik ez zela ikusten. Egindako galdeketetan ikusten zen, gehiengoak, gatazka hau elkarrizketaren bidez konpontzearen aldekoa zela. Baina bestetik ikusten zen jendearen nahi hau bultzatzeko inongo alderdirik eta erakunderik ez zegoela. Orduan ikusi zen hori nolabait borobildu, gorpuztu eta indar bihurtzeko bide bat izan zitekeela honi irtenbidea ematea.

G.- Zer da bitartekari izatea?

E.- Herrian dagoen gogo hori gorpuztu



eta agintariak bultzatzea honi irtenbide elkarrizketatu bat emateko. Garbi ikusten da, batetik inolaz ere amore eman nahi ez dutenak daudela eta bestetik, hau dena konponduta dago, bakar batzuk dira bakarrik demokrazian sartu nahi ez dutenak diotenak. Enkistatutako egoera dago, bakoitzak berean segitzen du, inork ez du amorerik ematen, berdin jarraitzen du. Mugitu arazteko bide bezala ikusten zen bitartekaritzak hau.

G.- Beste talde bakezaleekiko ze berrikuntza ekarri du Elkarrik? Zein harreman duzue?

E.- Jende gehien mugitzen duen taldea Gesto por la Paz da. Horren jokabidea oso sinbolikoa izan da: bakarren bat hiltzen dutenean, kalerara irten, ixilunea egin eta kittu. Hor gelditzen da. Hauei ere buruan sartu zaie postura hau ez dela nahikoa, zerbait aurrera egin behar dela, bultzatzea egin behar dela egoera hau aldatzeko. Beste talde bakezaleekin ere ari gara lanean, hartue manak aspalditik datoz. Maroñon denek onartu zuten biolentziazko espazioak elkarrizketa bideetara bihurtu behar zirela.

G.- Elkarri, lurraldetasunari dagokionean, non kokatzen da?

E.- Elkarriren planteamendua Euskal Herri osokoa da. Gaurkoz Hego Euskal Herrian dago zabaldua. Iparraldean ahaleginak egin ziren, baina Iparraldeko egoera nahiko berezia izanik, helburu berdinekin ez da itsatsi Iparraldean. Goierri gaurkoz, Beasain, Lazkao, Zaldibia eta Idiazabalen daude taldeak. Beste herrietan laguntzaileak daude. Guk Ataunen erabili dugun filosofia zera izan da: Ataunen badago prest jendea Elkarrin sartzeko, baina aurre rapausorik ez dugu eman bakoitzaren *sanbenito* hori mugimenduekin ez



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



ELKARTASUN BRIGADAK


ASKAPENAK antolatzen dituen brigadatan parte hartu nahi baduzu, dei iezaiguzu telefono zenbaki hauetara eta behar duzuen informazio guziaz ematen saiatuko gara.

Hernanin: 55 23 65. Asteartean, asteazkenean eta ostegunean arratsaldeko 5etatik 8etara.

Ordizia: 16 02 69. Asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 6etatik 8etara.

BRIGADAK: Cuba, Irlanda, Mexico, Palestina, Ecuador, Guatemala, El Salvador.

Izen emateko epea: maiatzaren 19ra bitartean.



nahasteagatik. Ataunen beti izan da tentsioa, eta HBko jende ezaguna sartuz gero, Elkarri HB da jendearentzat. Mugimendu hau berez ez da HB, eta ez du azaldu ere egin behar.

G.- Hasieran ezker abertzalearen inguruko talde bat bezala hartua izan zen Elkarri. Ezker abertzaleetik ere jaso ditu kritikak.

E.- Hori alde batetik triste xamarra bada ere, bestetik pozgarria gertatu zaigu. Batzuk leporatzen digute PSOE aldeko edo PNV aldeko jokabidea daramagula, eta besteek ezker abertzalekoa. Egia esateko gaurkoz Elkarri dagoen jendea ezker abertzale ingurukoa da gehiena, nahiz eta beste alderdietako jendea egon. Gure helburuetariko bat, herria anitza denez Elkarri herriko pentsakera guztiek lekua izatea zen. Gatazka honi itenbidea elkarriketa bidez eman behar zaiola uste dugu guztiok. Ez da inongo txartel berezirik eskatzen, puntu horretan ados egotea bakarrik.

G.-Elkarri bere burua gatazkaren erdian kokatu nahi izan du. Posible al da erdian kokatzea?

E.- Askotan arrazoiak bakarrik joaten gara denok. Arrazoi horiek kontuan eduki behar dira, baina onartu behar da, eta borondatea jarri gatazka hau bukatzeko. Horrek izan behar luke abiadako puntua elkarriketa hasteko. Eta pakea lortzera iritsiko balitz, dudarik ez dago, nolabait justizia neurri batean egin

beharko litzateke, bestela ez litzateke pakerik egongo. Justizi neurri horietan, gaur erreibindikatzen diren zenbait gauza derrigor hor behar lirateke, danak ez badira ere.

G.- Martxoan Bake Konferentzia antolatu zuen Elkarri. Zein ondorio atera ziren?

E.- Ondorioak positiboak dira bere neurrian. Joan zirenekin egon gara banan-bana eta orokorki oso positibotzat jo dute eta aurrera jarraitzeko asmotan dira. Hemengo gatazka bukatzeko argi daukagu agente guztiak bildu behar direla, eta PSOE—EE, PP eta UPN Bake Konferentzian ez izatea penagarria da. Baina uste dugu pauso bat izan dela, denak ez izanagatik, batzuk bildu direlako. Oraindik okerragoa izango litzateke hemen bertako alderdiak bakarrik bildu izan balira.

G.- Bake Konferentzian hartu ziren konpromezuak, hartu baziren behintzat, beteko al dira?

E.- Konpromezurik ez zen hartu. Gure helburua ez zen konpromezurik hartzea, baizik eta alderdien artean dagoen informazio eta hartueman eza ikusita, hori haustea, gatazka honi aurpegia eman, hizketan egitea eta hortan ohi-tzen joatea. Hori neurri batean lortu da.

G.- Ajuria Eneako Mahaiari buruz zein balorazio egiten du Elkarri?

E.- Ajuria Eneako Mahaiaren bidean nahiko garbia izan da nire ustez. Jarri

dituzten helburuetatik, polizia eta erre-presio aldetik bakarrik joan dira. Onartuta dituzten beste zenbait atal, elkarriketa bultzatzea..., ez dituzte aurrera eramane. Akuiluz eragin nahi diegu, beste puntu horiek garatzea ere komenigarriak baitira.

G.- Irlandako prozesuarekin ba al du antzekotasunik Euskal Herriak?

E.- Mugitu beharra dago derrigorrez. Irlandan hizketan hasteko suetenaren zain egon izan balira, oraindik hasieran bezala egongo lirateke. Bakarren bat hasi egin behar da, herriak hori eskatzen du. Irlandatik ekarritako informetean gehien harritu ninduen zera izan zen: IRAkoak konturatu ziren bide horretatik ezin zitekeela irabazi. Orduan salto bat ematea, beste estrategia bat hastea erabaki zuten. Euskal Herriaren alderdi guztietatik behar da borondatea, baina ez dago zain egoterik denak borondatetsu azaldu artean. Gure ustetan biolentziatzko egoera hau bukatzen ari da eta beste fase bat hasten. Transizio epe honetan dudarik gabe, ez gaitu harritzen Aznarri gertatu zitzaionak... Bide hori nahiko agortua ikusten dugu. Hitzetatik ekintzetara pasatu behar da. Hitzetako errotoika aldatu da eta orain ekintzetakoa aldatu behar da.

Mikel Albisu - Loinaz Agirre

Sagardotegia



aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 **LEGORRETA**

SIBONEY

Estetika guztia
Ana Kristina Olano

Senpere Zentru Komertziala
88 15 50 Tfonoa. **BEASAIN**



ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g Iurre auzoa
Tfona: 88 09 47 **OLABERRIA**

GOIERRITARRA



88 96 12



Amagoia

Diseinu Grafikoa
eta
Publizitatea

PLA/ DOMINGO UNANUE Z^o 2 TEL 88 10 06
20.240 ORDIZIA (GIPUZKOA)

DISEINU GRAFIKOA
Imagin korporatiboa / kartelak / txartelak
Posterrak / Gonbidaketenak / Anuntzioak / Muestrariok
Folletoak / Katalogoak / Kalendarioak / Portadak
Pegatinak / Postalak / Jateetxeetako kartak...

MARRAZKIAK
Marrazkiak teknika desberdinetan
Marrazki oso bereziak aerografaz eginak

ARGAZKI ERRETOKAJEA
Argazkiak beritzea eta efektu bereziak

Lazkaoko jaiak

Apirilak 27, osteguna:

10.00etan: Jubilatuen ibilaldi neurtua herrian zehar.

17.00etan: Gaztetxoentzat xakea Plazan.

18.00etan: Prudentzio Deunaren Ermittan bezperako elizkizunak.

19.30etan: Txupinazoa eta kalejira Antzar Gazteak txistulari eta bu-ruhaundiekin.

20.00etan: Trikitixa Plazan Ruth eta Amaia lazkaotarrek alaiturik.

22.00etan: 'Renacimiento' dantza talde mexikarraren emanaldia Kiroldegian.



Apirilak 28, ostirala, Prudentzio Deunaren eguna:

9.00etan: Goizeresia herrian zehar Antzar Gazteak txistulariekin.

10.30etan: Prozesioa, herriko korporezioak, Antzar Gazteak txarangak alaiturik, herriko zaindariaren irudiari Parrokitik Ermitara lagunduko diote. Bertan Oin Arin dantza taldeak agurra egingo dio.

11.00etan: Prudentzio Deunaren ermitan Meza Nagusia. Lazkao abesbatzak abestuko du.

12.00etan: Herri kirolak Plazan, Lazkao eta Beasaingo gazteen artean. Ondoren Xapre eta Zaharra trikitilariekin poteoa.

17.00etan: Benjamin, alebin eta infantilen arteko pilota partiduak Frontoian.

18.00etan: Oin Arin dantza taldearen emanaldia Plazan.

19.00etan: VI. Sardina jate herrikoia Plazan.

20.00etan: Dantzaldia Drindots taldearekin goizalderarte.

23.00etan: Suzko zezena.

Apirilak 29, larunbata, Kuadrila eguna:

9.00etan: Goizeresia Antzar Gazteak txistulariekin.

11.00etan: Saskibalo partidua Kirol-

degian.

12.00etan: Kuadrilen irteera Koxkola txarangarekin.

12.30etan: Kuadrilen arteko jokuak Plazan.

16.00etan: Xake txapelketa Kiroldegian.

16.30etatik 18.30etara: Puzgarriak eta zezen mekanikoa gaztetxoentzat.

18.30etatik-20.00etara: Zezen mekanikoa kuadrilentzat.

20.00etatik 22.00etara: Karaokea.

23.00etan: Dantzaldia Almen taldearekin. **Ondoren** txokolate jana, txalaparta, malabare eta hankaluzez alaituta.

OIARBIDE harategia

Odolkiak eta bertako haragia

☎ 88 17 17

Elosegi, 52

LAZKAO

☎ 16 05 16

Elosegi, 15

bortako

OILOTEGIA

Eguneroko arraultza ezinobeak

Elosegi, 25

☎ 16 09 71

LAZKAO

GERRIKO

S. A.

liburudenda

⇒ Liburuak

⇒ Jostailu didaktikoak

⇒ Eskola materiala

⇒ Bulego materiala

Elosegi, 16

Tfnoa.: 88 65 00

LAZKAO

Apirilak 30, igandea:

9.00etan: III. Lazkao txirrindulari proba 1.go eta 2. mailako afizionatuen-tzat.

11.30etan: Karate erakusketa Kiroldegian.

12.30etan: Koxkola txaranga.

17.00etan: Kiko, Koko, Moko eta Flash pailazoak Plazan.

18.30etan: Trialsin erakusketa Plazako futbol zelaian, Errenteriko Laguntasuna Elkartek eskainita.

19.30etan: Koxkola txaranga.

23.00etan: Suziriak Caballer Pirokteniaren eskutik.

24.00etan: Dantzaldia Izadirekin.



Maiatzak 1, astelehena:

9.00etan: Goizeresia Antzar Gazteak txistulariekin.

10.00etan: Eskualdeko 3. igeri lehiaketa Kiroldegian.

12.00etan: Makailu lehiaketa Plazan, Antzar Gazteak txarangak alaiturik.

16.00etan: Toka txapelketa Plazan.

17.00etan: XV. Dantza Sueltoke txapelketa Plazan.

18.00etan: Tolosako erraldoi eta bu-ruhandi konpartsa.

20.00etan: Iparragirre anai-arrebak trikitilariak Plazan.

Lazkaomendiko jaiak

Maiatzak 6, larunbata:

16.00etan: XIX. Lazkaomendiko proba.

Maiatzak 7, igandea:

10.00etan: Goizeresia Antzar Gazteak txistulariekin, Lazkaotik Lazkaomendira.

10.00etan: Ibilaldi neurtua, Lazkaotik Lazkaomendira.

11.00etan: Meza Nagusia San Juan

Ante Portam Latinam Deunaren ermitan. Udal korporazioa bertan izango da.

12.00etan: Haurrentzat jokuak.

13.00etan: Bertsolariak.

17.00etan: Herri kirolak, txinga, trontza, koskol eta lasteketa. Jarraian Faustoren erakustaldia: hortzekin txinga jasoko du.

17.45etan: Asto karrera.

18.30etan: Bertsolariak eta ondoren, Iparragirre anai-arrebak trikitilarien saioa.

EGUZKI-LORE

Lora denda

Ezkontza erregaliak
Andregai erramuak
Kotxe apainketa
Eliza apainketa
Hirigoi, 24 ☎ 884965 LAZKAO

OSTAISKA

Goxoki denda

Goxokiak
Fruitu lehorrak
Izozkiak
Elosegi, 2 LAZKAO



ARAKAMA HARATEGIA

San Prudentzio - Tel.883352

Elosegi - Tel.880720

Uhaitz - Tel.889314

LAZKAO



itxondo
roztegia, C.B.

ATAUN S. MARTINGO
BARANDIARAN Anaiak

Zubierreka z/g
☎ 160931

41 posta kutxa
LAZKAO

ARRIARAN MERTZERIA Haurren jantziak

Irigoi, 12
☎ 160682

Lazkao

Festarik luzeenak

Hiru asteburutako festak izango ditugu aurtengo; bi Lazkaon eta bat Lazkaomendin. Zer izan den eta zer izango den, jarraian duzue horren berri. Ostiralean, Gazte Asanbladak antolatutako kontzertua izan zen Udaletxeko arkupeetan. 200 bat entzule izan zituen, eta denak gustora. Dena den, aurreko asteburuan umeak izan ziren protagonista nagusiak.

Larunbatean, blusa koloretsuak jantzi eta goizetik hasi ziren txikienak hainbeste desio zituzten jaietaz gozatzeko. Marrazkiak, puzzleak, txapelketa



eta jokuak, bazkaria, buruhaundiak, suzko zezena eta txokolatada... dastatzeko aukera izan zuten. Guzti hori, Antzar Gazteak Txarangak alaiturik. Igandean guztiak urduri-urduri, maki-lak eta danborrak hartu, eta danborrada eskeini ziguten, eguraldia oso aldeko izan ez baguenen ere.

Asteburu hau izango da jendetsuena, baina hala ere aurreko larunbatean jende ugari hurbildu zen "antzarren herri-
ra". Goierrin eta inguruetan ospe handikoak dira Sanprudentzioak. Zer ote

daukate? Jendea harrotuta, berotuta, gustora... Larunbatean hala ere, sustoa ere eman zuten segurarrek. GOIERRI-TARRAko inkestatuatariko bat, Joseba Etxeberria, eta Jon Ander Hombre errekararen erroi ziren jolasean ari zirela. Baina zorionez, sustoan bakarrik gelditu zen, biak onik atera baitziren.

Baina denetan protagonista nagusia, eguraldia izan zen: hotza eta euria. Iaz egin zuen eguraldi ona dute denek buruan. Ohitura zaharra berreskuratzeko, San Prudentzio bizkarrean

OSAKI

Senda belarrak
Naturopata

Mikelar, 1
☎ 88 93 62

LAZKAO



ERROTAUNDI
OKINDEGIA

Elosegi, 2 ☎ 887490 LAZKAO

PATXI ELORDI HARATEGIA

Mikelar, 1
☎ 88 93 57

LAZKAO

ZUMAKETA, S.A.

etxebizitza, behe eta garajeak salgai
Lazkaoko Elosegi kalean

Koldo Eleizalde, 1 behea — Telefonoak: 76 33 42/43 — Faxe: 76 11 07 — BERGARA



hartuta prozesioa egin zen eta horregatik lagundu omen zuen eguraldiak. Aurten ere santua "paseatu" behar dutenez, ea eguraldia hobetzen den.

2. asteburura etorri, zer ez dago Lazkaon? Denetarik eta denentzat. "Renacimiento" dantza talde mexikarra, prozesioa, pilota partiduak, Oin Arin dantza taldearekin ikuskizuna, sardinak, txirrindulariak, pailazoak, txarangak, dantzaldiak, sueltoko dantza txapelketak.... eta noski, kuadrila eguna larunbatean. Urteko egunik one-na lazkaotar askorentzat. Urteko "lega-



tzik" handiena harrapatuko dute batzuk. Poltsikoak ustualdirik handienetakoa jasango dute. Baina denak kuadrilen eguna iristeko zai-zai daude. Horrelako asteburuaren ondoren, eskerrak astelehena jai dugun aurten goan.

Eta noski, 3. asteburuan, Lazkaomendira egin behar da bueltatxo. Txirrindulariak, ibilaldi neurtua, meza,

haurrentzat jokuak, bertsolariak, asto karrera eta herri kirolak izango dira nagusi. Erakustaldi ikusgarri bat ere prestatu du lazkaomenditarrek: Faus-tok txinga jasoko du hortzekin, igande-arratsaldeko 5etan.

Gehiago nahi izanez gero, datorren urterarte itxaron beharko duzue. Aurtengoarekin, ondo pasa!

ITXURRENE

TABERNA

Bazkariak, jaunartzeak, bataioak...

☎ 88 57 59

LAZKAOMENDI

Ana Belén

ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2

☎ 88 26 31

LAZKAO



Mundu-Bi

Berebilen elektro konponketa

Hiribarren, 17

Tfnoa: 88 74 58

LAZKAO

IKER errekadista

Lazkao - Donostia zerbitzua

Eguneroko eraman-ekarriak

☎ 88 29 26 / Mugikorra: 908 - 77 14 11

Gurutze, 3 - 3.A

LAZKAO

LAGUNAK

AUTO-KONPONKETAK

Ibabe Industrialdea, 19

☎ 88 91 51

LAZKAO

Autoen konponketa orokorrean
Gasolina eta diesela
Norabide zuzenketa
Olio aldaketak, koipeztaketak
Gurpilak, zulatuak
Diagnosiak

IDIAZABAL

Kultur Astea puri-purian

Urteroko leloari jarraiki, hemen dator-kigu beste behin ere maiatzeko Kultur Astea, sekula baino eskeintza borobilagoekin. Maiatzaren 2an hasi eta 8an agurtuko dugu datorren urterarte. Indarrean hasiko dugu astea hitzaldi interesgarriak ez baitira faltako. **Astearte**, Bernardo Atxagaren idatziak besapean hartuta lagun talde bat hurre-ratuko da gure herrira; horien artean Ane Aseginolaza herritarra izango da. Kultur Etxean izango da, arratsaldeko 8etan.

Asteazkenean berriz, eta arratsaldeko 4.30etatik aurrera, ohiko haur merienda izango da herriko enparantzan, eta ondoren Azkona taldeak haur jaialdia eskeiniko du Igarondo Pilota-lekuan. Helduentzat ere gordeko du egun honek tartetxo bat, izan ere, arratsaldeko 8etan, Kultur Etxeko bideo gelan, AHTren aurkako asanbladak bideo emanaldia eta hitzaldia eskeiniko bait ditu, 'Abiadura handiko tren Euskal Herrian' izenburupean.

Ostegunez, eta hau ere arratsaldeko 8etan, sexualitateaz jardungo dira Kultur Etxean. Gurasoei zuzendua izango da eta bertan, haurrak nola hezi eta sexu munduan nola barneratu azalduko zaie.

Astebururako berriz, ekintzarik nagusienak dauzkagu gordeta. **Ostiralean**, gaueko 10.30etan, Bederen I antzerki taldeak, 'Errenta' antzez-lana eskeiniko digu, Igarondo Pilota-lekuan.

Larunbata, hilak 6, egun handia izango da idiazabalarrantzat, izan ere, arratsaldeko 5etan hasiko den VII. Albitsu igoeraz gain, 7etan nesken boleibol finala ikusi ahal izango dugu. Hori gutxi balitz, gaueko 9etan herri afaria izango da, estreinekoz, Guraso Elkartean. Bertso paper, olerki, txiste eta trikitiaz alaituriko afari bikaina. Aurtan beste urteetan ez bezala, afaria Guraso Elkartean izateak beste giro bat sortuko duelakoan gaude eta Kultur Komisioko arduradunak dioenez, "garrantzitsua da horrelako herri afari bat ongi iriteteke detailerik xumeena ere kontutan izatea". Lekua, afariaren kostua, dena eztabaidatu omen da burutu diren bileretan.

Igandean, guztiontzat hain interesgarri eta arrakastatsu gertatzen den artisau erakusketa izango da herriko enparantzan, eta arratsalde partean, talozaleek aukera paregabea izango dute erakusketaz gain barrenak ongi goxatzeko. Halere, hain beharrezko suerta-

tzen diren trikitilariak ez ditugu ahaztu behar, goiz eta arratsaldean han izango baitira giro paregabea sortzeko asmoz.



Astelehena 8an, azken eskeintza baina askorentzat aberasgarriena izango dugu aukerako. Bi mendizale ospetsuk, (Felix eta Alberto Iñurrategik) 'K2 94' ibilaldiko audio-bisuala eskeiniko baitigute.

Aloña Galarraga



MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00



TXINDOKI institutua

Hezkuntz zerbitzu kalitatezkoa, euskalduna, dohanekoa, publikoa.

- BBB - IEE
- Batxilergo berriak (bailaran ikastetxe bakarra)

Izenematea:

Maiatzaren 4tik 18ra

Ugartemendi Auzoa, 6 • ☎ 88 07 53 - 88 73 93 • Fax 16 10 48 • 20200 BEASAIN

Aurrekontuak onartuta

EAJ, EA eta PSOEren aldeko botoez, eta HBren abstentzioaz onartu dira aurtengo aurrekontuak. Guztira 1.220 milioiko aurrekontua izango da, (94koa baino % 10 gutxiago): 340 milioi inguru pertsonal gastuetarako, 295 bat milioi funtzionamentu gastuetarako eta 199 milioi inbertsioetarako.

50 milioi INEM eta Arte Plastikoen zentrua eraikitzeko (hiltegi zaharra) erabiliko dira; 38 milioi Antzitar Kiroldegiarentzat; 30 milioi, Goimene-kin elkarlanean, baserrietarako bideak konpontzeko; 20 milioi pergola atzean Renferen karga-deskargarako lekua egokitzeko; Gurutze Gorriarentzat 10 milioi, e.a.

Hauteskundeak

Alkategaien izenak dantzan dabiltza jada. EAJtik Jon Jauregi joango da; HBtik Txemi Arteaga (presoa); EAtik Idoia Arratibel; PSOE-EEtik Jose Luis Elortza; IUtik Eduardo Fernandez eta PPetik Herreros.

Maiatza Dantzan

'Antzerkiaren Garaia' bukatu denean, Gipuzkoako Diputazioak zenbait uda-



Joseba Alonso eta Marisol Legorbururen artea dago ikusgai.

len laguntzaz antolatzen duen Maia-tza-Dantzan kanpainaren txanda dator jarraian. Iliacan taldeak 'Ya no sabria tornar' ikuskizuna aurkeztuko du hilaren 6an, 22.30etan Usurbe Antzokian. Sarrera 800 pezetakoa izango da. Oraindik balorazio ofizialik egin ez bada ere, 'Antzerkiaren garaia' kanpainaren balorazioa oso positiboa izan da Beasaingo Udaleko iturrietatik jakitera eman ditugunez. Inoiz ez bezala, antzerkia ikustera 200 lagunetik joan baita saio bakoitzean.

Erakusketak

Joseba Alonso eta Marisol Legorburuordiziar pintoreen lanak ditugu ikusgai hilaren 30 bitartean, Usurbe Antzokiko Erakusketa-Aretoa. Bi pintoreok, besteak beste, Ordiziako hilerriko Kapera eta Goierriko Lanbide Eskolako Muralak egin dituzte elkarrekin. Hurrengo erakusketa Luis Cisnerose eskeiniko digu.

LA.

LEGORRETA

"Jan da lo" txapelaldun

Urtero antolatu ohi den kuadrilen arteko Futbol Txapelketan Jan da lo A taldekoak izan dira garaileak finalean Kabi-ri 1-0eko emaitzaz nagusitu ondoren. Finalak beste urte batzuetako emoziorik izan ez bazuen ere, azken unean Jabi Mujikak sarturiko gol bati esker erabaki zen partidua Jan da lo A-koen alde. Jabi Mujika bera izendatu zuten finaleko jokalaria hoberena bezala.

Eguerdian ohizko bazkaria izan zuten Bilkoin Elkartean txapelketan parte hartutako guztiek eta giro ederrean ospatu zuten eguna. Bitxikeri bezala esan txapelketan azkenak geratu diren Gautxoriak-ek eta Legorretako nesken

futbol taldeak herriko festetan jokatu-kodutela elkarren aurka. Desafio polita izango da dudarik gabe.

Bilkoinen Pelota Txapelketa

Iaz Pala Txapelketarekin froga egin ondoren, Pelota Txapelketa antolatzerantz izuli dira Bilkoin Elkartekoak. Txapelketa apirilaren 22an hasi zen eta bertan 15 urtetik gorakoek bakarrik parte ahal izan dute. Bikoteak zozketaz osatu ondoren, bi taldetan banatu dira, A onak eta B erregularrak. Txapelketa ligilla bidez jokatu da. Txapelketaren ondoren bazkari edo afaria ospatu da Bilkoin Elkartean.

Festetako Bilera

Festetako bilera egin zen apirilaren 11an Herriko Zinemaren. Bertan udal-txekoek eta kuadrilen zenbait ordezkari hartu zuten parte, ekintza guztiak ia loturik geratu zirelarik. Herriko jendearen partaidetza nahitanahiezkoa dela argi geratu zen berriro ere. Udal-txekoek festa herrikoi batzuen aldeko apustua egin dute beste urte batez eta guztion ahalegina beharrezkoa da hori aurrera atera ahal izateko.

Josune Amondarain

Gipuzkoako Odol Emaile Elkartearen batzar nagusia

Datorren apirilaren 30ean, Zegamako Odol Emaile Elkartek antolatutako, XXX. batzar nagusia ospatuko da gure herrian. Hau dela eta, Juan Mari Ormazabal Elkarteko ordezkariak Zegamako Odol Emaile Elkartearen azken nondik norakoak azaldu dizkigu.

1969an, premia baten aurrean, Antonio Otaegi Berasategi izan zen Zegamako lehena odola ematen. 1970ean, Beasaingo Odol Emaile elkarteak Zegamako Guraso Elkartera zuzendu zen odol emaileak biltzeko asmotan. Garai hartan Juan Patxi Garmendia eta Ramon Otaegirekin egon ondoren, Ramon Otaegi Zegamako ordezkari izendatua izan zen. Harrezkero 6 hilabetetik 6 hilabetera zegamarrek odola emateko aukera izan dugu. Hasiara hartan zegoen kontzientzia ez zen gaur egungoa bezalakoa, izan ere 10 lagun azpitik izaten bait ziren egun hauetan odola ematen.

1986an Ramon Otaegi ordezkariaren heriotzaren ondorioz, urte betera Juan Mari Ormazabal izendatu zen honen lekuko. Odol emate egunak antolatzeko ardura honen esku dago



Juan Mari Ormazabal.

harrezkero. J.M. Ormazabalen esanetan, azken urteotan, lehenaz gain jende gaztea odola ematen hastearekin batera kontzientzia maila handiagoa dago, izan ere, Zegaman 38tik 45 bat lagunek ematen bait dute odola urtean bitan. Hala eta guztiz ere, beste norbaitek odola emateko gogorik balu beragana jo edo odol emateko egunean

Jubilatuaren Elkartera azaldu besterik ez duela adierazi du Ormazabalek.

Ospakizun egunean, apirilaren 30ean, meza ondoren, elizan bertan Antonio Otaegiri plaka bat emango zaio Zegamako lehenengo odol emaile izateagatik. Hala nola baita Juan Patxi Garmendia eta Ramon Otaegiren Odol Emaile Elkartearen aintzindarien alargunei ere. Ondoren, 25 emanaldi egin dituzten Gipuzkoako odol emaileei intsigni eta diploma bana emango zaie. Hauen artean bi herritar daude: Luis Mari Otaegi Goia eta Juan Mari Ormazabal Agirre ordezkaria. 2.30etan lagunarteko bazkaria izango da Kiroldegian. Bazkaria zerbitzatzeko herriko borondatezko jendea izango da. Azkenik, zenbait sariaren zozketa egingo da. Guzti hau alaitzeko herriko Arakama trikitilariak izango dira.

Zegamako Odol Emaile Elkartek, bere ordezkariaren bidez, laguntzaile eta Zegamako Udalari eskerrak eman nahi dizkie egun hau antolatzeko eman duten laguntza eta babesarengatik.

 Edurne Albizu

ZALDIBIA

Irakurtzeko zaletasuna sortu

Zaldibiko Lardizabal Herri Eskolak hitzaldi iteresgarria antolatu du apirilaren 26rako, honako gai honen inguruan: "Irakurtzeko zaletasuna nola bultzatu bai eskolan eta bai etxean". Lardizabal eskolako hitzaldi-aretoan izango da, esan dugun egun horretan, arratsaldeko 17:30etan. Zaurauzko PATEko (Pedagogi Aholkularitza Taldea) Alfredo Garzia izango da hizlaria.

Guraso guztiok gonbidaturik zaudete hutsik egin gabe bertaratu zaitezten, probetxuko bilera izango da eta.

Dantzari Txiki Eguna

Nahiz eta eguraldi txarra egin arrakasta handiz ospatu zen joan den igandean
22-GOIERRITARRA

"IV. Dantzari Txiki Eguna". Honako talde hauek izan genituen partaide: Ereintza (Erreterria), Jakintza (Ordizia), Lurra (Urretxu), Aurtzaka (Beasain), Gazte Alaiak (Mallabia), Aintzindariak (Altsasu) eta Iztueta (Zaldibia). Goizeko 11:00ak eta arratsaldeko 17:00ak arte programa bikain eta zabalarekin bete zuten, hainbat dantza eder eta kalejira eskaini zigitelarik.

Herriko jende soilak nahiz komertzioek laguntza bikaina eskaini zuten eguna ondo atera zedin. Zorionak eta datorren urtera arte!

Pilotariak

Hasi da aurtengo Herri Arteko Gipuzkoako Txapelketa. Iaz bezalaxe, aurten ere lehen kanporaketako partidua

Antzuolaren kontra jokatuko ditu Zaldibiak. Zehazkiago esanik, etxean jokatuak dira jadanik, orain han jokatzeko falta zaie. Bestalde, iaz ez bezala, posibilitate handiak dauzka Zaldibiak aurrera egiteko. Izan ere, etxeko saioan emaitza ezin hobeak lortu baitituzte gure pilotariak, nahiz eta handien kategorian galdu egin zuten: Iraola eta Eskisabelek 18 eta 2 irabazi zieten Erraondo eta Agirrerri; Jauregi eta Sukiak, berriz, 18 eta 5; eta, esan bezala, Garmendia eta Mendizabalek galdu egin zuten (8-22) Berraondo eta Idiakezaren aurka. Larunbaten jokatuiko dituzten bueltako partidua.

 Rufino Iraola

Ordiziako Mendizaleak 50 urte

Jakina da euskaldunok betidanik izan dugun mendira joateko ohitura hori. Dena den, XX. mendean sartu arte modu indibidualean egiten zen, afizioz, ez zegoen inolako antolakuntzarik, elkarterik. Baina 20. hamarkadan pausu handi bat emango da mendiari lotutako mundu honetan, Euskal Herriko Alpinismo Federakuntza sortzen baita. Hau herri desberdinetako Elkarteen osaturik zegoen.

1926an 'Pyrenaica' mendi aldizkaria sortzen da eta lehen alean 'Villafranca de Oriako Santa Ana Kirol Elkartea' aipatzen da. Zerbait bazegoen, beraz, gure herrian. Baina 1930 inguruan, Primo de Riveraren erorketarekin batera Ordiziako taldea desagertu egingo da. Arrazoia, jendeak mendia utzi eta alderdi politikoetan sartu izana.

Baina 40ko hamarkada indarberritu egin ziren mendizaleen nahiak eta Euskal Herri osoan Elkarreak sortzen hasi ziren nonnahi. Ordiziak ez zuen gutxiago izan nahi eta 1943an mendigoizale talde bat mugitzen hasten da. Honela, 'Villafranca Kirol Elkartea'aren barnean mendiari zegokion atal bat lortu zuten. Gaur egun Ordiziako Mendizaleak-ek duen egoitzan gordeta dauden garai hartako estatutuen arabera, Elkartea 1945eko apirilaren 5ean fundatu zen, 'Villafranca U. C.'-tik aldendu ondoren. Orain 50 urte, beraz.

Hasiera batean Martinez tabernan biltzen ziren. Zuzendaritza ere osatu zuten nola edo hala. Bertan, astebukerako mendi-irteerak erabakitzen zituzten, baita ibilaldi neurtuak eta lehia-



Larrunen 1973ko abuztuan. Zutik: Maite Lasa, Arantxa Gonzalez, Ramon Balentziaga "Balentxi", Alfonso Mintegi, Bakartxo Etxeberria, Jokin Dorronsoro eta Kepa Sarasa. Eserita: Ana Mari Garmendia, Josu Mujika, M. Mujika, Juan Migel Goiburu, Mertxe Mujika eta Xanti Mendizabal.

ketak antolatu ere. Ondoren Martinezek Madrid kafetegira pasa ziren. 40-50 bazkide inguru ziren eta segituen jabetu ziren lokal baten beharraz. Honela, Ordizia kaleko oilategi zahar bat eskuratu eta elkarte bihurtu zuten, gaur egun oraindik zutik dagoen elkartea hain zuzen.

Garai hartan, ordea, bi motako bazkideak zeuden: giltzadunak eta giltzarik ez zutenak, lokaleko bazkideak bat eta mendikoak besteak (giltza nahi ezkeror ordaindu egin behar zuten).

Harrezkeroztik euri asko egin du inguruko mendietan, baina ordiziarrek tinko eusten diote mendira joateko ohiturari. Tarteetan etapa desberdinak daude ordea. Lehendabizikoan, hastapenekoan, mendizaleak inguruko mendietara joaten ziren (Aralar, Aizkorri, Ernio...). Garraiobideak garestiak ziren eta ezin urrutira joan.

60ko hamarkadan gauzak zertxobait aldatzen dira eta aldi honi 'Pirineotako konkista' dei geniezaioke. Ordiziar as-

ko, bertako mendiak momentuz alde batera utzi eta Pirineoak konkistatzera abiatzen da. 70 hamarkada, berriz, 'Alpeetako konkista' bezala ezagutu dezakegu, bertako 4.000 metroko gailurrak aise igo baitzituzten herritar ugari.

Gaur egun, gauzak asko aldatu diren arren, Elkarreak martxan dirau, asteburuero mendi-irteerak eginez. Honez gain, lehiaketak, ibilaldi neurtuak... prestatzea urteroko lantzat daukate Ordiziako Mendizaleak-ekoek.

Gauzak honela, Elkartea sortu zenetik 50 urte pasa direnean, ekintza ugari prestatu dituzte urtean zehar antolatzailerak. Horietako bat Gipuzkoako Itzulia 15 etapatan egitearena da, asteburuero burutzen direnak. Bestalde, urteurreneko egun ofizialtzak apirilaren 30a aukeratu dute. Egun honetan Txindokira igoera herrikoia antolatu dute, herritar ugari parte hartuko duenaren ustearekin (garraioa dohainik). Ondoren luntxa izango da Larraitzen eta gero bazkaria Oiangun.

Hitzaroren ikastaroa

Hitza Euskara Elkarreak ikastaro bat antolatzen du, "Akatsak zuzenduz eta euskara hobetuz" izenekoa. Ikastaro hau Euskaltzain oso den Patxi Goenagak emango du, Ordiziako Kutxak duen aretoan, apirilaren 27 eta maiatzaren 4, 11, eta 18an, arratsaldeko 6etatik 8etara.

 Aitor Calvillo

ZORION INSAUSTI

DIETA PERTSONALIZATUAK: argaltzeko, kolesterola, azido uriko, kirolari, eta abarrentzat.

Kale nagusia, 8
☎ 88 13 37

ORDIZIA

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

Beheko Barrioko eguna

Urtero bezala maiatzaren 3an Santa Kruz egunean ospatuko dute beren jaia bolalekutik beherakoek. Iluntzeko 7.30etan auzoan hildakoen alde meza emango da Beheko Kurutzan. Ondoren Udalak eskainitako 'lunch'-a, eta 9etan afaria Guraso Elkartean, arrai zopa, txahal buztana eta ijito besoa izango da menua eta musikarekin amaituko dute eguna. Igandean, maiatzaren 7an Segurako txirrindulari elkarteak antolatuta, jubenil mailako XXI. Gurutze deunaren txirrindulari proba izango da Javier Ormazabalaren oroimenez. Irteera goizeko 9.30etan emango zaio, 96 km. egin ondoren 11'55 aldera bukatzeko. Txirrindulariek helmuga baino 4 km. lehenago Liernia igo beharko dute Ormaiztegi aldetik.

Zeraingo Jauregi etxeari oparitua

Betidanik bertatik pasatu izan direnentzat umiltokia izan bada ere, badu Beheko Kurutzeko ermita honek eta inguruak ertaroko bandoen gerra garaiko leienda bat. Zeraingo Jauregi etxekoek beren talai-dorretik Lazkaoko Jauregiko oinaztarrak Segura hartzera zetozela ikusita bertako ganboatarrak abisu eman zioten. Segurarrak Errebalen aurre egin eta gezi batez Lazkaoko oinaztarren buru zena hiltzean bere jarraitzaileek ihesari eman zioten. Ganboatarren garaipena eta Lazkaoko jaunaren heriotza gogoratzen duen hilarria, kotxe bide berria egin zenetik Akostane etxeko paretan



Beheko Kurutzan orain dela 50 urtetik gora ateratako argazkian ezagun asko ikus daitezke oraindik.

dago. Honez gain, gezia bota zuten etxekoak herriko zergen ordainketatik libre utzi zituzten, eta abisua eman izanagatik Beheko Kurutza ermita Zeraingo Jauregi etxeari oparitu zioten.

Pelota

Joseba Auzmendi erremontalaria finalera bidean da Galarretaren XXV. urteurrenako torneoan Ezkurrarekin batera Matxin eta Iriarteri joaneko partidua 40-36 irabazi ondoren. 2. partidua Huarteko Euskalen jokatu dute apirilaren 30ean eta ETBk eskeinia izango omen da.

Herriartekoaren itzuliko partidua apirilaren 28an jokatzeak dira Zizurkilen, bertan herritarrek joaneko 2-1 emaitza alde izango dute.

Elizako pitzadura

Frontoi aldeko paretan aspalditxoan ageri den pitzadura dela eta, Udalak aginduta apirilaren 17an hasi zen enpresa berezitu bat kanpatorratzean, eta batez ere matxoien inguruan geologi azterketa egiten, oinarria aurkitu eta arazoari zer konponbide eman dakiokeen ikusteko.

 Joseba Telleria

GABIRIA

Pailazoak, bertsolariak eta antzerkia asteburuan

Udal Kultur Batzordeak eta Osinalde Elkarrekin apirilaren 22tik 30era arte antolatu duten Kultur Astearen barnean honako ekintza hauek ospatuko dira asteburu honetan:

● Apirilak 29, larunbata: Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoak herriko plazan, arratsaldeko 5etan. Eguraldi txarra izanez gero, pilotalekuan egingo litzaiteke. Arratseko 9etan XXIV. Bertsolari

Gazteen Txapelketa, Osinalde Elkarrekin.

● Apirilak 30, igandea: Goaz antzerki-taldearen emanaldia Parrokiako Antzokian, arratsaldeko 5etan. Antzeztuko duten lana Manuel Lekuona-ren 'Eun dukat' izango da.

Bitxikeria gisa esan behar dut antzeztan hau herriko jende helduenek oso ezaguna izango dutela, izan ere

1950eko hamarkadan hiru bat aldiz antzeztu baitzuten Gabirian bertako herritarrek, eta pertsonaiarik nagusienaren lana, hain zuzen, 'Osaba Ramus'-ena Juan Muruak eta Nikolas Alustizak egin zuten, eta oraindik ere oso gogoan dituzte gertaera horren inguruko xehetasun guztiak.

 Gabino Murua

Alkate makila hiru hautagaien amets

Amets, kezka, karga, ardura, buru-hauste... ohore. Aurrekoan esan genuenez 3 aukera izango dira herrian, datozen hauteskundeetan: Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna eta Herrigintza. Orain badakigu gainera nortzuk izango diren alkategaiak eta zerrendan joango direnak.




HB: Zerrenda-buru Karmele Aierbe Mujika Lauztiturrietakoa. Gainerako zerrendakideak prentsurreko bidez emango ditu ezagutzera HBk.



EA: 1. postuan Jone Erauskin Barandiaran Intsusti-berrikoa. Ondoren, Inazio Auzmendi Zaindikoa, Pello Re-

zola Bidebietakoa, Josune Aldabe Artzulokoa eta Antton Altolagirre Errota-zaharrekoa.



Herrigintza: Aitor Auzmendi Asurabarrena Lazkautei-berrikoa. Ondoren, Pello Agirre Arratibel Sariartekoa, Iñaki Eskisabel Zurutuza Errotaberrikoa, Jose Benito Apalategi Dorronsoro Olaldekoa eta Juana Isabel Aramendi Arana Txomñonekoa.

Orainarteko alkate batzuk

Lehenbiziko alkatea Telleri-azpiko Andres Telleria izan zen 1616an, Ataun herri independente egin zenean Ordiziatik aske. Azkeneko 10 alkateak: Joxemari Bikuña, Estanis Dorronsoro, Juan Auzmendi, Sabina Zurutuza, "Benantxio" Aierbe, Iñaki Arin "Bobi", Iñaki Baztarrika "Kaxio", Inazio Auzmendi, Lander Imaz eta Sagarrio Eskisabel. Azken 10 alkateetatik denbora gehien Sabinak egin zuen, 8 urte. Gutxien, berriz, Lander Imazek: 3 hilabete eskas.

Ataungo Abesbatza

Laster izango dugu abesbatza herrian. 30 bat lagun elkartu dira, iaztik ari dira

bilerak egiten eta, gauzak ondo, udazkenerako lehen saio ofiziala egingo dute, beharbada Samartinetan. "Marron"i egin zitzaion omenaldian urratu zituzten lehenengoz eztarriak jendaurrean eta orain kantuak aukeratzen ari dira. Entsaioak ostegunetan 8etan Udaltzeko Ganbaran.

Jakin beharrekoak

● **Plenoa Udalak**, aurreko asteazkenez, hilak 26an: beste gai batzuen artean Udalak sortuko dituen bi lanpostu berrien oinarriak onartzekoak ziren.

● **Gabillene udaleku**: hori da Elizaren asmoa; eskakizunak egin dira eta proiektuak ere prest daude, lanak has-tea falta.

● **Euskadiko Itzulia**: herrian ihes eginda pasa ziren Palacin eta Escartin karreristek 15 minutu eta 10 segundu behar izan zuten Ataun zeharkatzeko, Lizarrusti gainetik Umarrak zubira.

● **Heriotzak**: Katarrotegiko Manuela Apalategi Barandiaran apirilaren 4an hil zen, 88 urte zituela. Arratingo Patxi Zurutuza Zurutuza, berriz, apirilaren 17an. 72 urte zituen.

Eskolan sari zai dare

Aurten e ez-tue eskutsik geatzeko asmoik zortzigarren mallako eskolarruk. Euskadiko Kutxak-Kaja Laboralak bideo-sketch leihaketea ein do ta baakiu eskolakok ein duen lana finalean dala. Artzai baten eta lapur batzun istorie men da. Milloi bat da lenbiziko sarie eta iaz baakizue irazi eta Beljika aldea jun da ibilli ziela koadrilla earra. Aurten e oixe nai due. Eztue urrutin izango!

Jon Aizpurua



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batzaz beste, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin



Jon Decoración

Goierrri, 15
ORDIZIA

☎ 88 17 08



Tfona: 885500 ORDIZIA

Animese Martinez eta Erga Omnes-eko kitarrekin

Ordiziako bi talde hauekin hitz egiteko genuen aukera ezin genuen alferrik galdu, ohizko moduan taberna bat jo genuen topagune gisa. Animese Martinez taldean, Alberto, Jesus Mari (Geivs), Ritxard eta Mikel. Erga Omnesen Xabi, Joseba, Jordi eta Iñaki (Eric amerikarra 6 hilabetez izan zen). Ritxar eta Joseba-ekin izan gara berriketan.

G.- Zergatik aukeratu zenituzten noise eta Seattle inguruko erritmoak?

E.- A.M: Ez dakit, haseran denak oso punkak ginen, ondoren Pixies, Inquilino, grungea, e.a... entzun eta horrek musikalki markatu gintuen.

E.O: Guk ere hasera batean musika gogorragoa eta zikinagoa egiten genuen, baina Eric hemen gurekin izateak asko eragin gintuen.

G.- Oso arrakastatsua izan zen Barreran egin zenuten set akustiko hura. Nola sortu zen ideia?

E.- Hasera batean akustikoaren ideia asperralditik etorri zen eta horixe hiltzeko egin genuen. Xabi (E.O.ko bateria) ikasten ari zen eta akustikoa egiteko Geivsi deitu genion, horrelaxe izan zen.

G.- Ez al duzue uste set akustikoena moda huts batean gelditu daitekeela horrelako emanaldi batek suposatzen duen lana kontutan izanda?

E.- Guk ez genuen modarengatik egin, uste dut Xabi jotzen egongo balitz ez zela egingo, baina bai, orokorrean moda bat da. Gaur egun dena komertzializatzen da, akustikoak ere bai, eta gainera oso akustiko onak egin dira.

G.- Zer musika entzuten duzue?



E.- A.M: Sebadok, Davement, Strangers, Yo la tengo, Paralisis Permanente...

E.O: Oraintxe Night Noise entzuten aritu naiz, baina bestela Jame's Addiction, Porno For Pyros, N.I.N....

G.- Zer da musika alternatiba zuentzat?

E.- Musika alternatibo musika mota bat definitzeko erabiltzen zen baina orain bere zentzu osoa galdu du.

G.- Ordiziarrak izanda, nolatan abesten duzue ingelesez?

E.- E.O: Ez dakit, hori bakoitzaren gustoetan dago, gure kasuan Ericen eragina handia izan da.

A.M: Bakoitza bere abestien jabe denez nahi duena egin dezala beraiekin... Erosotasunagatik ere bai, eta gainera gure kasuan inor ez da poeta.

G.- Ezer berririk grabatzeko intenziorik ba al duzue?

E.- A.M: Aste Santuan gure lehen maketa grabatu genuen. Lehenengo esperientzia izango da gurea eta jotzeko oso ondo etorriko zaigu maketa hau, maketa bat izatea oso garrantzitsua da, ia beha-

rezkoa. Inquilino Comunista-ko Javik ekoiztuko digu maketa.

E.O: Uda aldera ea grabatzen dugun, guretzat erronka bat bezala izango da 2. maketa, lehena nahiko kaxkarra atera bait zitzaigun.

G.- Nola dago egoera kontzertuetarako egiteko?

E.- E.O: Gu ezin gara kexatu, asko jo baitugu, jo nahi duenak baiditu aukerak baina hobetu liteke dudarik gabe.

G.- Udalaren laguntzarik ba al duzue?

E.- Ordiziako Udalak ez digu batere laguntzen, gure garajeetan entseiatzen dugu, horretan zortea dugu, baina bestela...

G.- Ba al da oraindik rock-a kultura ez dela kontsideratzen duenik?

E.- Bai, Udaletxean adibidez, dirurik ez zegoela esan ziguten eta gero koadro batean diru dexente gastatu zutela agertu zen egunkarian, beti berdin.

Bi talde hauek emango digute zeresanik datozen hilabeteetan. Animese Martinez taldeak lehen aipatu bezala abeste bikainak maketan gauzatuta ikusiko dituelako eta horretan laguntzeko gizonik aproposena aukeratu dute, El Inquilino Comunistako bateria. Erga Omnesek berriz, gauza bera egiteko asmoa du eta ziur gaude beraien gaitasunak gauzatzean lehen egin zuten akats bera (maketaren grabaketa kaxkarra) egin ezean, arrakasta ziurtatu dutela.

Kontaktua: Animese Martinez. Alberto: 889569. Erga Omnes. Joseba: 880427.

Artza

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
Tfno.: 88.51.68
ORMAIZTEGI

Giro fator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

ILEAPAINDEGI
MISTOA

XerLo

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) BEASAIN
Tfno.: 16 11 05



Beasaingo La Salle-ko ikasleak (1967)

Pello Sarriegik bidali digu honoko argazkia. 3. Batxilerra egin zuten honoko mutikook, Beasaingo La Sallen.

Goitik hasita **1. go lerroan:** Calvo (Ataun), Goikoetxea (Ataun), Dorronsoro (Ataun), Imaz (Beasain), Fernandez (Beasain), Zaldúa (Beasain), Aseginolaza (Idiazabal), Frutos (Beasain), Garcia (Segura), Rubio (Beasain), Sarriegi (Lazkao).

2. lerroan: Ugartemendia (Beasain), Paredes (Beasain), Baez (Segura), Etxeberria (Gabiria), Agirre (Segura), Azalza (Segura), Agirre (Segura), Imaz (Beasain), Oiarbide (Beasain), Mendia (Beasain).

3. lerroan: Barbadillo (Olaberria), Salvador (Olaberria), Alcalde (Beasain), Briz (Beasain), Lizarazu (Idiazabal), Urteaga (Olaberria), Apaolaza (Zegama), Arrieta (Segura), Gomez (Beasain), Ruiz (Beasain), Imaz (Segura).

4. lerroan: Maiza (Beasain), Gurrutxaga (Ormaiztegi), Mayora (Ormaiztegi), Rodriguez (Beasain), Nestor (Beasain), Rodriguez (Beasain) eta Ilera (Beasain).

gaur
express
mezulariak

- Hiri barruko zerbitzuak
- Nazionala 10 ordu
- Nazioarteko zerbitzuak
- 3.500 kg arteko kamioi zerbitzuak

Beasain: 88 89 38 Tolosa: 65 19 96 Donostia: 47 24 38

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

GANBO GARDEN CENTER

MAIATZA

AMAREN EGUNA

Lore sortak

Landare zentroak

Kanpo eta barruko landareak

Lore artifizialezko zentroak

JAUNARTZEAK

Keramikazko panpina bereziak

Ospakizunerako opari egokiak



EZKONTZAK

Eliza eta autoen
apainketak, emaz-
tegaien lore sortak,
jatetxeko zentroak,
gonbidatuentzat
opariak

OLABERRIKO MERKATAL UNEA

☎ 88 22 55

LAZKAOKO FESTETAKO GIROA

ZELATA TABERNA

*Giro ezin
hobea!*

*Uhaitz, 1
LAZKAO*

MANUEL-ENEA

TABERNA

*Festa onak
pasa!*

☎ 88 20 29
Elosegi, 5
LAZKAO

GERRIKO TABERNA

Eguneroko bazkariak
Afariak

☎ 88 99 43
Elosegi, 16
LAZKAO

POLI taberna Jatetxea

Polikiroldegian

☎ 88 71 97



ALBOKA taberna

Uhaitz, 2
LAZKAO

ESTANKO TABERNAK

Festa zoriontsuak
opa dizkizue denoi

Elosegi, 7
LAZKAO

GIROA TABERNA

Pintxo ederrak
jateko aukera

Areso, 6
☎ 88 77 40
LAZKAO

DORRAO TABERNA

Ondo ibili
festetan

Elosegi Kalea, 4
☎ 88 00 04
LAZKAO

ANSOATEGI HERRIKOA

Festak ondo
pasatzeko
txokoa

Elosegi, 15
☎ 88 68 52
LAZKAO

MY PUB

Ana eta
lagunak

San Jose, 29
LAZKAO